

A. Tratamenduaren arduraduna

Generali Previsión Empleo, EPSV (GENERALI)

Sozietatearen helbidea: Alameda de Rekalde, 33, Bilbo (Espainia)

IFZ: V-95188330

Merkataritza-erregistroko inskripzio-datuak: BI-33195 orria.

Datuak babesteko ordezkaria: delegadoprotecciondatos.es@generali.com

B. Xedeak eta lege-oinarriak

Jarraian, datu pertsonalen xedeak azaltzen dira eta zein oinarrik legeztatzen duten tratamendua:

i. **GENERALI erakundearekin izenpetutako kontratu-harremana exekutatzea legitimatzea:**

- Erretiro-pentsioa osatzeko edo aurreikusitako gertakizunak estaltzeko kapital bat eratzek xedez Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakunderako atxikitzea formalizatzea.
- Kontratu-harremana kudeatzea, mantentzea eta kontrolatzea, ekarpenen kobrantza izango dena eta, hala balegokio, beste BGAE batzuetarako intsuldaketa.
- Kontratu honekin lotutako komunikazioak egitea, aseguruaren egoerari buruzko egoeraren berri emateko xedez eta GENERALI erakundeak zure eskura jarritako tresnekin, kontratu-harremana kudeatzeko eta kontratu honen baitan zure gaitasunak gauzatzea errazteko xede bakarraz.

ii. **Lege-betebehar bat betetzearen legitimazioa:**

- Agintari publikoei, arautzaileei edo gobernu-erakundeei informazioa ematea, legeak, tokiko arauak edo arau-eskakizunek hala eskatzen dutenean.
- Merkataritza-kodeak eta Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundearen araudi erregulatuak eskatutako kontabilitate-liburuak eramatea.
- Kapitalak zuritzea eta terrorismoa finantzatzea prebenitzeko araudiko baldintzak betetzea, eta araudi zaharrak eskatutako eginbide-neurriak aplikatzea.
- Matrize duen Assicurazioni Generali Spa erakundeari eta Generali taldeko beste sozietate batzuei lagatzea, Kapitalak zuritzea eta Terrorismoa finantzatzea prebenitzeko araudia betez, aipatu araudi horretan bildutako neurriak dagokion prestutasunez aplikatzeko behar diren datu pertsonalak. Horretarako, eta indarrean den Datu Pertsonalen Babeserako araudiari jarraikiz, Assicurazioni Generali Spa erakundeak eta Generali taldeko sozietateek datu pertsonalen tratamenduarekin lotutako erantzukizunak zehaztu dituzte Tratamenduari dagokion akordio baten bidez. Akordio horren funtsezko elementuak dira aipatu araudien arabera beharrezkoak diren bezeroen datu pertsonalak partekatzea prozedura berak erabiliz beti, bezero horien datu pertsonalak prozesatzeko plataforma komun bat erabiltzea eta datuen segurtasuna bermatzeko egokiak diren antolaketa-eta segurtasun-neurriak aplikatzea. Aurreko paragrafoari dagokionez, bezeroak datuak babesteko eskubideak gauzaten baditu, Generali taldeko sozietateak kontuan izan beharko du eskaera eta gauzatu egin beharko du, indarrean diren Datuen Babeserako araudiak edo Kapitalak Zuritzea eta Terrorismoa Finantzatzea Prebenitzeko araudiak onartzen duten neurrian. Bezeroaren informazioa plataforma komunean sartu duen Generali taldeko sozietatea arduratuko da eskaera betetzeaz. Dokumentu honetako G. Datuen babeserako eskubideak atalean jakinarazten da indarrean den araudiaren arabera eskubideak gauzatzeko modua.

iii. **GENERALI erakundearen lege-interesaren legitimazioa:**

- Merkataritza- edo publizitate-ekintzak edo komunikazioak egitea, edozein bitartekoren bidez, baita bitarteko elektronikoak edo antzekoak erabiliz, GENERALI erakundearekin kontratatutako antzeko produktuekin edo zerbitzuekin lotuta, informazioaren gizaritari eta merkataritza elektronikoari buruzko uztailaren 11ko 34/2002 Legeko 21.2 artikuluari jarraiki.

- b. GENERALI erakundeak dituen datu pertsonaletan oinarritutako profilak egitea, zure profiltera gehien doi daitezkeen produktuek eta zerbitzuak ezagutzeko eta, horrela, interesa dakizkizukeen produktuei eta zerbitzuei buruzko eskaintza onenak proposatzeko.
- c. GENERALI erakundeak emandako zerbitzuekin lotutako gogobetetasun-inkestak egitea, gogobetetze-maila ebaluatzeko, GENERALI erakundearen baldintzak betetzearekin lotutako prozesuak eta zerbitzuak hobetze aldera.
- d. Taldearen barneko lagatzea: aseguru-etxeen arteko talde barneko informazioaren elkartrukea, gainbegiratze-betebeharrak gauzatzeko.

Era berean, bermatzen duzu GENERALI erakundeari emandako datu pertsonalak egiazkoak direla. Gainera, GENERALI erakundeak zure buruzko datu pertsonalak berrikusteko eta eguneratzeko eska diezazuke tarteka.

C. Datuen hartzaileak

GENERALIk zure datu pertsonalak jakinarazi ahal izango dizkie beste BGAE batzuei, Generali Taldeko sozietateei, administrazio publikoei, elkartekidearen Defendatzaileari eta BGAEen beste kudeatzaile batzuei, beharrezkoa bada finkatutako zure eskubideak mugitzeko eta lekualdatzeko, *“B. Xedeak eta lege-oinarriak”* atalean azaldutako xedeei eta lege-oinarriari jarraiki

Era berean, zure datu pertsonalak hartzaile-kategoria desberdinei jakinarazi ahal izango zaizkie, beharrezkoa balitz, eta haien artean aipa daitezke, adierazpen gisa soilik eta mugatzeko izaerarik gabe, perituak edo antzeko profesionalak, ibilgailuak konpontzeko tailerrak, abokatuak, auzitegietako prokuradoreak eta notarioak, detektibeak, erreklamatzailak, osasun-zentroak eta asistentzia-ospitaleak, mediku-baloratzailak, errehabilitazio-kudeatzaileak, talde-istripuen kudeatzaileak, pentsio-funtsen kudeatzaileak, dokumentazio-artxiboen kudeatzaileak, salbamendu-enpresak, matxuren komisarioak, berreraikitzaileak, arrazoiari ikertzaileak.

Aipatu hartzaileetako batzuk, Konpainiarekin kontratuzko harremana indarrean den bitartean, tratamenduaren arduradun dira. Harreman hori amaitzen denean, datu horien Erantzule izatera pasatu daitezke, sektoreko berriazko araudian xedatzen denaren arabera.

D. Datuen jatorria

Zuk edo zure aseguru-bitartekariak emandako datu pertsonalak gorabehera, GENERALIk tratatu ahal izango ditu beste BGAE batzuetatik edo bazkide babesleetatik datozen datu pertsonalak, *“B. Xedeak eta lege-oinarriak”* atalean azaldutako xedeei eta lege-oinarriari jarraiki.

Aurrekoari jarraiki, GENERALI enpresak kategoria hauei dagozkien eta hirugarrenek emandako datu pertsonalak tratatuko ditu:

- i. Identifikazio-datuak.
- ii. Posta-helbideak eta helbide elektronikoak.
- iii. Datu ekonomikoak.

Ez da babes bereziko datu pertsonalik lortzen hirugarrenetatik.

E. Nazioarteko transferentziak

Jakinazpen dizugu GENERALI enpresak Europako Esparru Ekonomikotik kanpo dauden zerbitzu-hornitzaileak izan ditzakeela. Kasu horietan, kontratu loteslean xedatzen diren datu pertsonalak babestera diseinatutako neurriak bete ditzaten eskatzen die hartzailei erakundeak, Europako Batzordea hartzailea dagoen herrialdeak datu pertsonalak babesteko maila egokia ematen duela erabakitzen duen herrialdeetan izan ezik. Bezeroak GENERALI enpresak eskatutako neurrien kopia bat lortu nahi badu, Datuen Babeserako Ordezkariekin (“DBO”) jar daiteke harremanetan, A klausularen amaieran adierazitako helbidean.

F. Datu pertsonalak gordetzea

GENERALI enpresak datuak gordetzeko ezartzen dituen epeak legeetan, araudietan eta zuzentarauetan ezarritako eskakizunen arabera dira, baita bezeroekin harremana ongi kudeatzearekin lotutako GENERALI enpresaren eragiketa-baldintzak ere.

Bereziki, Kapitala zurtzea eta terrorismoa finantzatzea ekiditeko legeak, aplikatu badaitezke, datuak hamar urtez gorde behar direla xedatzen du eta merkataritza-araudiak, berriz, sei urte, bi aldeetan artean gauzatutako kontratutik eratorritako ekintzak preskribatzeko epeak igaro ostean.

G. Datuen babesari buruzko eskubideak

Indarrean den legegari jarraiki, jakinarazten dizugu eskubidea duzula datuak atzitzeko, zuzentzeko eta horien aurka egiteko, baita datuak kentzeko, tratamendua mugatzeko eta datuak eramateko eskubidea ere (NAN edo antzeko baten kopia baten bidez) helbide honetan: Generali previsión individual, EPSV, Alameda de Rekalde, 33, 48009 Bilbo (Espainia), edo helbide elektronikoa honetan: dataprotection.es@general.com.

Eskubideei buruzko informazio gehiago lortzeko, zuzendu zaitez Datuen babeserako Espainiako agentziara, eta aurkeztu erreklamazio bat zure eskubideak ez direla gorde uzte baduzu, helbide honetan: calle Jorge Juan, 6, 28001, Madril.

Pribatutasun-oharrek aldaketak eta eguneratzeak.

Aplika daitezkeen pribatutasun-legeen balizko aldaketak kontuan hartuta, Konpainiak, osorik edo zati batean, egunera dezake pribatutasun-ohar hau. Egindako edozein aldaketa edo eguneratze aplikagarri diren legeei jarraikiz jakinaraziko da eta Konpainiaren webgune honetan ere argitaratuko da: <https://www.general.com/quienes-somos/privacidad>